

VII Argazki Lehiaketa

“Udazkena Euskal Herrian”

AERYOH, Heredatutako Erreaktismo
eta Osteomalazia Espaniar
Elkartearen onurarako



2021

Oinarriak:

- *Udazkena Euskal Herrian da argazkien gaia, bai basoetako paisaiak, ibaiak, itsasoak nola hiri eta landa ingurukoak.*
- *Parte hartzea libre eta doakoa da. Elkarte antolatzaileko kideek parte hartu ahal dute, baita zuzendaritzako kideek ere, epaimahaiko kide izan ezean.*
- *Hiru argazki bidali ahal izago dira gehienez ere, helbide honetara bidali ere: lehiaketak@artgazki.org.*
- *Bidaliko diren argazkiek 200 puntu hatzbeteko bereizmena eduki beharko dituzte gutxienez; eta haien alderik luzeenak, 50 cm, kamararen jatorrizko proportzioan.*
- *Argazkiak koloretakoak zein zuri-beltzezekoak izan daitezke.*
- *Argazkiekin batera datu hauek bidaliko dira: egilearen izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefonoa, argazki bakoitzaren izenburua eta non dagoen eginda.*
- *Partaideek lehiaketara aurkeztutako argazkien egileak direla bermatu beharko dute.*
- *Aurkeztutako argazkiek ezin izango dute inprimatuta eraman ez egilearen izena ez inolako anagramarik.*
- *Irabazleak aukeratu arte argazkiaren egilea nor den ez da zabalduko, ezta sare sozialetan edo web orrian zabaldua badago ere.*
- *Ezin izango dira aurkeztu beste lehiaketa batzuetan sarituak izan diren lanak.*
- *2021ko azaroaren 30ean, asteartea, 22:00etan amaituko da argazkiak jasotzeko epea.*
- *Abenduaren 5ean, igandea, jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia, bai zein diren erakusketako argazkiak bai hiru argazki irabazleak.*

- Berariaz debekatuta daude fotomuntaketa bidez egindako irudiak. Epaimahaiak baztertu ahal izango ditu bere iritziz manipulaturik dauden argazkiak, hala nola, irudiaren elementu bisualak erantsi, kendu edo lekuz aldatuz osatutakoak. Ez dira onartuko argazkiaren jatorrizko formatoa aldatzen duten errekorreak.

- Argazkigintzako eta irudigintzako pertsona kualifikatuek osatuko dute epaimahaia, eta irizpide hauek erabiliko ditu lanak baloratzeko orduan: teknika, originaltasuna, estetika eta kreatibitatea.

- Oinarri hauekin bat ez datozen lanak baztertu eta edozein sari hutsik uzteko eskubidea du epaimahaiak.

- Argazkirik onenak Arrasateko hainbat establezimendutan erakutsiko dira. Argazki horiek salgai egongo dira, eta bildutako dirua AERYOH Heredatutako Erreakitismo eta Osteomalazia Elkarteari emango zaio.

ARGAZKIEN GAINEKO ESKUBIDEAK

- Antolatzaileek eta babesleek irudiak erabiltzeko eskubidea izango dute –beste batzuek ere eduki ahalko dute–, informazioa zabaldu edo ekintzaren bat sustatze aldera, eta lehiaketara aurkeztutako edozein argazki erakutsi, beti ere egilearen izena adierazita.

Sariak:

1. saria: garaikurra eta 300 €.
2. saria: garaikurra eta 200 €.
3. saria: garaikurra eta 100€.

Sari-banaketa urtea amaitu baino lehen egingo da, behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko den lekuan eta egunean.